

**EPELEKO (BERGARA) KONPOSTAJE
PLANTAREN ETA TRANSFERENTZIA
ESTAZIOAREN EXEKUZIO PROIEKTUA
IDAZTEKO KONTRATUA ARAUTZEKO
KLAUSULA ADMINISTRATIBO
PARTIKULARREN PLEGUA**

AURKIBIDEA

SARRERA.....	1
I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK.....	1
1 KONTRATUAREN OBJEKTUA	1
2 KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA.....	3
3 ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA	3
4 KONTRATUAREN EPEAK	4
5 LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.....	4
6 ORDAINTZEKO MODUA.	5
7 PREZIOEN BERRIKUSPENA.....	5
8 KONTRATU-DOKUMENTUAK ETA KONTRAESANAREN KLAUSULA OROKORRA	5
9 KONTRATATZAILEAREN PROFILA.....	5
10 PUBLIZITATEA	6
11 JURISDIKZIOA.....	6
II. KAPITULUA: KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA	6
12 ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA	6
13 LIZITATZAILEEN ESKURA JARRITAKO DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIOA.....	6
14 GAITASUN-BALDINTZAK	7
15 PROPOSAMENEN AURKEZPENA.	8
15.1 Proposamenak aurkezteko lekua eta epea.....	8
15.2 Dokumentazioak bete beharreko baldintzak.....	9

16	PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA	10
17	IZAPIDETZEA ETA NEGOZIAZIO-FASEA	15
18	ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA	16
18.1	. Eskaintzen sailkapena.	16
18.2	. Adjudikazioa	17
18.3	. Adjudikazioaren jakinarazpena.	17
18.4	. Adjudikazioaren ebazpena.	18
18.5.	Dokumentazioaren zaintza	18
19	ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK	18
20	BEHIN BETIKO BERMEA	18
21	KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA	19
21.1	Kontratua formalizatzea	20
21.2	Ez formalizatzearen ondorioak	20
	IV. KAPITULUA: ALDERDIEN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK	20
22	KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK.....	20
22.1	Kontraprestazioa jasotzeko eskubidea.....	20
22.2	Kontratuaren lagapena.....	20
23	KONTRATISTAREN OBLIGAZIOAK	21
24	KONTRATAZIO-ORGANOAREN (GHKREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN) ESKUBIDEAK	21
24.1.-	Kontratua aldatzea.....	22
24.2	Aplikatzekoa den araudian aitortutako eskubideak.....	22
25	KONTRATAZIO-ORGANOAREN OBLIGAZIOAK	22
26	KONTRATUAREN HARRERA.....	22

VII. KAPITULA: ZIGORRAK	23
27 EZ BETETZEAGATIK, KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK	23
27.2. BEHAR DEN BEZALA EZ BETETZEA.....	23
27.3 KAUDIMEN-KONPROMISOAK EZ BETETZEA.....	23
VIII. KAPITULA: KONTRATUAREN IRAUNGIPENA	23
28 KONTRATUAREN IRAUNGIPENA.....	23
28.1 KONTRATUA BETETZEA.....	23
28.2 KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.....	24
I. ERANSKINA. ARDURAPEKO ADIERAZPEN EREDUA	25
II. ERANSKINA. PROPOSAMENA GHK-KO SARRERAKO ERREGISTROAN ENTREGATZEKO EREDUA	26
III. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA	27
IV. ERANSKINA. ENPRESA ATZERRITARREN DEKLARAZIOA	28
V. ERANSKINA KOMUNIKAZIOETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA(K).....	29
VI. ERANSKINA. EXEKUTATZEKO EPEA BETETZEKO KONPROMISOAREN EREDUA	30

SARRERA

Baldintza Administratibo Partikularren Plegu (aurrerantzean BAPP) honen objektua, Bergarako (Gipuzkoa) Epeleko Konpostaje Plantaren eta Transferentzia Estazioaren Exekuzio Proiektuaren idazketa kontratatzeko baldintza administratiboak ezartzea da.

Azpiegitura kokatuko den lursaila, Bergarako Udalak 2013ko ekainaren 24an behin betiko onetsitako "Epeleko Hondakin Inerteen Hondakindegia erantsita dagoen lursailean Hiri Hondakinen Azpiegitura Publikoa eraikitzeke Planean" adierazten da.

Konpostaje Planta eta Transferentzia Estazioa, horretarako bereziki prestatutako kokalekuan eraikiko da, "Epeleko eremurako sarrerak moldatzeko eta aldameneko bideak eraldatzeko Lur Mugimenduak" egiteko proiektuan —2013ko ekainaren 27an GHK, SAUk "Epeleko eremurako sarrerak moldatzeko eta aldameneko bideak eraldatzeko Lur Mugimenduen Eraikuntza Proiektuko Obrak egiteko Kontratua" adjudikatu ondoren exekutatzeko ari denean— definitutakoaren arabera.

Era berean, Bergarako Udalak Jarduera Sailkatuaren Lizentzia eman du 2013ko uztailearen 24an, Epeleko Konpostaje Planta eta Transferentzia Estazioa eraikitzeke.

LAPek Gipuzkoan aurreikusitako azpiegiturak inplementatzeko kokalekuak zehazten ditu. Horien artean, aipatutako azpiegituraren kokalekua finkatzen du Bergarako Udalerrian.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak du, **GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA** (aurrerantzean GHK) sozietate unipertsonalaren bitartez, Lurraldearen Arloko Planean aurreikusitako azpiegiturak diseinatzeko eskumena, eta, beraz, bidezkoa da lizitazioa egitea.

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

Plegu honetan jasotzen dira GHK merkataritza-sozietateak Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak aginduta eta haren kontura adjudikatuko duen **"EPELEKO (BERGARA) KONPOSTAJE-PLANTAREN ETA TRANSFERENTZIA-ESTAZIOAREN EXEKUZIO-PROIEKTUA IDAZTEKO"** kontratua arautuko duten klausula administratibo partikularrak.

1 KONTRATUAREN OBJEKTUA

Kontratu honen objektua **"EPELEKO (BERGARA) KONPOSTAJE-PLANTAREN ETA TRANSFERENTZIA-ESTAZIOAREN EXEKUZIO-PROIEKTUA IDAZTEA"** da.

Kontratuaren objektuan honako eginkizunak sartuko dira:

- Gaikako bilketatik eta inausketatik eta/edo nekazaritzatik lortutako biohondakin garbitik abiatuta konposta fabrikatzeko hautatutako teknologia eta behar diren prozesuak definitzea eta justifikatzea.
- Epeleko Konpostaje Planta eta Transferentzia Estazioaren Exekuzio Proiektua idaztea, bertara iristeko bideen urbanizazioa barne.

Bergarako (Gipuzkoa) Epeleko Konpostaje Planta eta Transferentzia Estazioaren Exekuzio Proiektua idazteko kontratua honako fase nagusi hauek betez egingo da:

▪ **1. FASEA: Konpostaje-prozesuaren definizioa eta exekuzio-proiektuaren garapenaren hasiera.**

KONPOSTAJE-PROZESUAREN DEFINIZIOA: Adjudikaziodunak xehetasunez azalduko du eskaintzen duen konpostaje-prozesua, Preskripzio Teknikoen Pleguan zehaztutako betekizunak betetzeko aukeratutako prozedurak, sistemak, ekipoak, makineria eta obra zibila justifikatuz. Prozesuaren definizioa GHK-k onartu beharko du.

▪ **2. FASEA: Iristeko bidearen, transferentzia-estazioaren eta espazio komunen exekuzio-proiektuaren garapenaren hasiera.**

Proiektuaren garapena arintze aldera, fase honetan hasiko da proiektua diseinatzen, konpostaje-plantari dagokion espazioa izan ezik, Preskripzio Teknikoen Pleguko 2. klausulan jasotzen den bezala.

▪ **3. FASEA: Exekuzio-proiektuaren garapena.**

EXEKUZIO-PLANAREN GARAPENA: GHK, SAUk onartzen duenean egin asmo den konpostaje-prozesua, adjudikaziodunak Exekuzio Proiektua landu beharko du, bertan deskribatuz, osotasunean eta ongi eraikitzeke egokia den mailan, iristeko bideak, urbanizazioa, eraikinak, instalazioak, ekipoak eta sistemak, Preskripzio Teknikoen Pleguan eta bere eskaintzan jasotako preskripzioen arabera.

Exekuzio-proiektua aski izango da Obraren lizitazioa egiteko eta xehetasunez landuko du aukeratutako soluzioa.

Exekuzio Proiektua egiteko, kontuan izango dira "Epeleko Eremurako Sarrerak Moldatzeko eta Aldameneko Bideak Eraldatzeko Lur Mugimenduen Eraikuntza Proiektua" eta obrako fasean proiektu horretan egindako aldaketak.

Kontratu honen objektu diren prestazioak egitean, kontratistak beteko du "Epeleko Hondakin Inertean Hondakindegia erantsita dagoen lursailean Hiri Hondakinen Azpiegitura Publikoa eraikitzekeo Planean" aurreikusitakoa, eta, halaber, Epeleko Lur Mugimenduen Proiektuan, Jarduera Proiektuan eta Jarduera Lizentzian, eta Plegu honetan eta Preskripzio Teknikoenean eta kontratu izaera duten gainerako dokumentuetan aurreikusitakoa, Plegu honetako 8 eta 13. klausuletan ezarritakoaren arabera. Ingumenari eta/edo hirigintzari eta/edo udalari buruzko araudietan egin litekeen aldaketa oro nahitaez bete beharko du kontratistak kontratu honen objektu diren prestazioak exekutatzean, eta, kasua denean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan xedatutakoaren arabera erabaki beharko dira kontratu-obligazioen aldaketatik erator litezkeen ondorioak.

2 KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Kontratu hau izaera pribatukoa da, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua onartzen duenak (aurrerantzean SPKLTB) 20.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta eraenduko da Klausula Administratibo Partikularren Plegu honetan (aurrerantzean KAPP edo Plegua) eta beronen eranskin guztietan, Preskripzio Teknikoen Pleguan eta kontratuaren gainerako dokumentu guztietan xedatutakoaren arabera, 8. klausulan ezarritako moduan.

Prestatzeari, adjudikatzeari, ondorioei eta iraungitzeari dagokionez, adierazi den moduan, kontratua arautuko dute Klausula Ekonomiko Administratiboen Plegu honek, Preskripzio Teknikoen Pleguak, GHKren Kontratazioko Barne Instrukzioek eta, horietan aurreikusten ez den gaitan, zuzenbide pribatuko arauak.

Gainera, SPKLTB eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean APKLEO) ere aplikatzekoak izango dira Plegu honek espresuki lege-arau horietara bidalketa egiten duen guztietan.

Kontratua, edozein alderditan, ez ezagutzeak edo gauza itundua exekutatzekeo aplikagarriak izan daitezkeen bestelako edozein eratako kontratu-dokumentuak ez ezagutzeak, ez du libratuko adjudikazioduna horiek guztiak betetzeko obligaziotik.

3 ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Entitate kontratatzailea GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, S.A.U. sozietatea da (aurrerantzean GHK).

Kontratu honen kontratazio-organoa GHKren Administrazio Kontseilua da, eta, kasua denean, aplikatzekoak diren zuzenbide pribatuko arauen arabera, berariaz eman ahal izango die ahalmena egokitzen jotzen dituen pertsoneri jarduketara konkretuak exekuta ditzaten.

4 KONTRATUAREN EPEAK

Proiektua burutzeko gehieneko epea **HIRU HILABETEKOA** izango da adjudikazio-kontratua sinatzen denetik.

Aurkezten den proposamenean kronograma bat gehitu beharko da proiektuaren fase nagusiak eta mugarriak zehaztuz.

Proiektua 3 fasetan egingo da, plegu honen lehenengo klausulan zehazten den bezala, eta fase bakoitzaren entregatzeko epeak Plegu Teknikoko 7.4 apartatutan ezarritakoak izango dira.

- 1. FASEA: 2 aste, adjudikazio-kontratua sinatzen denetik kontatuta.
- 2. FASEA: 6 aste, adjudikazio-kontratua sinatzen denetik kontatuta.
- 3. FASEA: 10 aste GHK-k 1. fasea onartzen duenetik kontatuta.

5 LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

1. Kontratu honen lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **EHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA EURO ETA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMOAN (199.999€)** finkatzen da eta kopuru horri gehitu beharko zaio dagokion BEZa.

Ez da onartuko EHUN ETA HOGEITA HEMERETZI MILA EURO ETA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (139.999 euro) eta dagokion BEZa baino gutxiagoko proposamen ekonomikorik.

Kopuru horiei dagokien BEZa gehitu beharko zaie, sortzapen-garaian aplikatzekoa den legezko tasaren arabera.

2. Kontratu honen prezioa adjudikaziodunaren eskaintza ekonomikotik ateratzen dena izango da. Edonola ere, kontratuaren prezioa ezingo da izan lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino handiagoa, BEZa sartu gabe. Kopuru hori gainditzen duten proposamenak atzera botako dira. Kontratu hau kontratistaren arrisku eta menturara exekutatzekoa denez, kontratistak kobratzeko eskubidea izango duen prezioa, edozein kasutan, oroharreko prezio itxi bat izango da, kontratistak egin duen eskaintza ekonomikoan eta Plegu honetan adierazitako baldintzetan ezarritakoaren arabera.

3. Kontratuaren prezioan sartzen direla ulertuko da aplikatzekoak diren era guztietako tributu, tasa eta kanon guztiak, eta Plegu honetan eta kontratuaren gainerako dokumentazioan aurreikusitako obligazioak betetzetik kontratistari sor lekizkiokeen beste gastu guztiak.

6 ORDAINZEKO MODUA.

Kobratzeko dokumentua aurkezten eta onartzen denean ordainduko da kontratuaren prezioa, honela:

- %20 kontratua sinatzen denean
- %20 GHK-k lanaren 1. FASEA onartzen duenean.
- %60 Exekuzio-proiektua entregatzen denean

7 PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara exekutatu da, eta ez da preziorik berrikusiko.

8 KONTRATU-DOKUMENTUAK ETA KONTRAESANAREN KLAUSULA OROKORRA

Kontratu izaera izango dute eta, beraz, alderdientzat nahitaez bete beharrekoak izango dira, jarraian zehazten diren dokumentuak eta dagozkien eranskinak.

1. Klausula Administratibo Partikularren Plegu hau.
2. Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua, Klausula Administratibo Partikularren Pleguarekin kontraesanean ez dagoen guztian.
3. Kontratua formalizatzeko dokumentua eta gero sinatuko diren kontratua garatzeko dokumentuak, hala nola ordainketa-plana.
4. Adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintza.

Adjudikaziodunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu, adostasuna adierazteko, kontratua formalizatzeko ekitaldian.

Dokumentuen terminoetan kontraesanen bat dago, elkarrekin lotura duten dokumentuak interpretatzeko kontuan hartuko da klausula honetan zein ordenatan zerrendatzen diren, eta lehentasuna izango du zerrendan besteen aurretik agertzen denak.

9 KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Gardentasuna eta kontratu-jarduerari buruzko informaziorako sarbide publikoa segurtatzeko, hargatik eragotzi gabe SPKLk agintzen duen kasuetan gaitu beharreko

beste publizitate-bide batzuen erabilera, Interneteko atarian ikusi ahal izango dute kontratatzailearen profila lizitatzailleek, <http://www.ghkinfo.net> gunean.

10 PUBLIZITATEA

Lizitazio hau eta kontratuaren behin betiko adjudikazioa kontratatzailearen profileen argitaratuko dira.

11 JURISDIKZIOA

Jurisdikzio zibilak izango du eskumena kontratuaren lizitazioari, prestatzeari, adjudikatzeari, ondorioei, betetzeari eta azkentzeari buruz alderdien artean sortzen diren auziak ebazteko.

II. KAPITULUA: KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA

12 ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Kontratu hau prozedura negoziatu publizitadedunaren bidez adjudikatuko da, eta modu arruntean izapidetuko da, Barneko Kontratazio Instrukzioen eta SPKLTBko 169. artikulutik 178.era bitartekoetan ezarritakoaren arabera.

13 LIZITATZAILIEN ESKURA JARRITAKO DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIOA

Preskripzio Teknikoen Pleguko [7.1.](#) apartatutan jasotako dokumentazioaz gain, kontratazio-organoak lizitatzailien esku jarriko du prozedura honi buruzko dokumentazio osoa, dokumentu hauek osatua:

- Klausula Administratibo Partikularren Plegua eta dagozkion eranskinak.
- Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua, dituen eranskin guztiekin.
- Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko Plana [Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean dago eskuragarri (www.gipuzkoa.net)]
- Abenduaren 23ko 7/2008 Foru Araua, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorren aurrerapen agiria onartzen duena. [Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean dago eskuragarri (www.gipuzkoa.net)]

Dokumentazio hori GHKren bulegoetan jarriko da eskuragarri lizitatzailleentzat, Hernaniko Ibaiondo industrialdean, 27. zk.an, 3. solairuan. Dokumentazioa euskarri informatikoan emango da, CD/DVDan.

14 GAITASUN-BALDINTZAK

1. GHKrekin kontratua egin ahal izango dute, banaka nahiz multzoan, jarduteko gaitasun osoa duten eta kontratatzeko debekurik ez duten pertsona natural edo juridiko espainiar nahiz atzerritarrek.

Lizitazioan ezingo dira sartu espezifikazio teknikoak edo kontratua prestatzeko dokumentuak lantzen parte hartu duten enpresak, parte-hartze horrek lehia libreari kalte egin badiezaioke edo lizitazioan sartzen diren beste enpresen aldean faborezko tratua badakarkie.

2. Gainera, kontratuaren objektu den jarduera edo prestazioa egiteko behar den gaikuntza profesionala edo enpresariala izan beharko dute enpresaburuek, halakorik bada.

Pertsona juridikoak kontratuaren adjudikaziodun izan ahal izateko, nahitaezkoa da kontratuan eman beharreko prestazioak pertsona juridikoaren xede, objektu edo jardueraren esparruan sartzea, Estatutuetan edo fundazio-erregelatan ezarritakoaren arabera.

3. Edozein kasutan, GHKrekin kontratua egin ahal izango dute, espainiarrak izan gabe ere, Europar Batasuneko Estaturen batekoak diren enpresek, beren Estatuko legeriaren arabera, kontratuan egin beharreko prestazioa egiteko gaituta badaude.

Enpresa horiek kokatuta dauden Estatuko legeriak baimen berezi bat edo organizazio jakin batekoa izatea galdatzen badu kontratuaren objektu den zerbitzua bertan eman ahal izateko, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Europar Batasuneko kide ez diren estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek Espainiako Diplomazia Misio Iraunkorraren txosten baten bitartez egiaztatu beharko dute enpresaren jatorrizko estatuak aukera ematen diela Espainiako enpresei hango administrazioarekin eta SPKLTBko 3. artikuluan aipatutako sektore publikoko antzeko ente, organismo edo erakundeekin egiten diren kontratazioetan funtsean modu bertsuan parte hartzeko, Diplomaziako Misio Iraunkorraren txostena enpresak aurkeztu beharreko agiriekin batera aurkeztuz.

4. GHKrekin kontratuak egin ahal izango dituzte asmo horrekin eraturako aldi baterako enpresaburu-elkarteek. Aldi Baterako Enpresaburu Elkarteko kideek Plegu honetako 16. klausulan adierazitako kaudimen-baldintzak bete beharko dituzte, eta kide guztiek solidarioki erantzungo dute kontratua betetzeaz, irauten duen denbora guztian.

Ez da beharrezkoa izango aldi baterako enpresaburu-elkarteak eskritura publikoan formalizatzea harik eta kontratua adjudikatzen zaien arte, eta SPKLTBko 59. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da. Hala ere, enpresaburu horiek eskaintza aurkezten duten unetik aurrera, GHKren aurrean solidarioki obligatuta geratuko dira lizitazio honetatik eta kontratutik eratortzen diren obligazio guztiak betetzeko kontratua amaitu arte, eta

pertsona bat izendatu beharko dute, lizitazioan eta kontratuaren exekuzioan zehar ordezkari edo ahalordedun gisa jardun dezan, kontratua amaitu arte sortzen diren eskubideak egikaritzeko eta obligazioak betetzeko behar adinako ahalordearekin.

5. Lizitazioan parte hartzen duten enpresa guztiek Plegu honekin batera doan **I. Eranskina** aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta.

15 PROPOSAMENEN AURKEZPENEA.

15.1 Proposamenak aurkezteko lekua eta epea.

1. Proposamenak GHKren bulegoetan aurkeztuko dira, Hernaniko Ibaiondo Industrialdeko 27. zk.ko 3. solairuan, **2014ko URTARRILAREN 20ko hamahiruak (13:00) arte.**
2. Lizitazio hau, adierazi den bezala, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean iragarriko da, eta informatikako atari edo webgune honen bidez atzitu ahal izango da: <http://www.ghkinfo.net>. Leku berean egongo da klausula administratiboaren plegua ere. Plegu teknikoa eta 13. klausulan adierazitako dokumentazio osagarria GHKren bulegoetan jarriko dira eskuragarri lizitatzailerentzat, Hernaniko Ibaiondo industrialdean, 27. zk.an, 3. solairuan. Dokumentazioa euskarri informatikoan emango da, CD/DVDan.
3. Dokumentazioa postaz bidaltzen denean, enpresaburuak justifikatu beharko du zein egun eta orduetan egin duen bidalketa Posta bulegoan, eta egun horretan bertan kontratazio-organoari jakitera eman beharko dio eskaintza bidali duela, telex, fax edo telegrama bidez. **Bai dokumentazioa bidaltzea eta bai bidalketa egin dela iragartzea,** iragarkian adierazitako aurkezteko epea amaitzeko **data eta ordua igaro aurretik egin behako dira.**
 - Eskaintzaren aurkezpena posta elektronikoz ere iragarri ahal izango da, baina kasu horretan, iragarpenaren bidalketa baliozkoa izan dadin, jasota egon beharko du mezua bidali eta jaso dela, bidaltze- eta jasotze-data, komunikazioen eduki osoa eta modu fede-emailean identifikatuta egon beharko dute bidaltzaileak eta hartzaileak. Kasu horretan, kopia inprimatua lortuko da, eta erregistratu eta espedienteari erantsiko zaio.
 - Bi baldintza horiek betetzen ez badira, proposamena ez da onartua izango, iragarkian zehaztutako epea amaitzeko data eta ordua igaro ondoren jasotzen badu GHK-k. Hala ere, adierazitako datatik hamar (10) egun natural igarotzen badira dokumentazioa jaso gabe, dokumentazio hori inola ere ez da onartuko, APKLEOko 80.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki.
4. Parte hartzeko eskaera kontratazio-organoak adierazitako bulegoetan aurkezten denean, kontratazio-organoak eskaera hori erregistratuko du eta zigilatutako kopia

bat itzuliko dio lizitatuazileari, aurkeztu izanaren ordezkagiri gisa. Kopia horretan azalduko dira lizitatuazilearen izena, kontratuaren objektuaren izendapena eta proposamena aurkeztu den eguna eta ordua, **II. Eranskinen** aurkeztutako ereduaren arabera.

15.2 Dokumentazioak bete beharreko baldintzak

Lizitatuazileek aurkezten duten dokumentazioak betekizun eta baldintza hauek bete beharko ditu:

1. Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatuazileak baldintzarik gabe onartzen dituela Plegu honetako klausulak eta kontratu izaera duten gainerako dokumentuetakoak, inolako salbuespenik gabe, eta bere ardurapean adierazten duela betetzen dituela sektore publikoarekin kontratua egiteko eskatzen diren baldintza guzti-guztiak. Beraz, emandako dokumentazioan eta eranskinetan aurreikusitako baldintza tekniko, ekonomiko, eragiketako edo bestelako guztiak beteko dituzte eskaintzek.

Lizitatuazileek ekarritako dokumentuetako edozeinetan salbuespenen bat jartzen bada, edozein kasutan, salbuespenik ez dela jarri ulertuko da, eta kontratua kontratazio-organoak emandako dokumentazioan ezarritako moduan exekutatu beharko da, hori baita lizitazioaren oinarria.

2. Proposamenak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.
3. Informazio guztia paperean inprimatuta eta euskarri informatikoan (Word, Presto 8.8, Excel, mpp, pdf, dwg... fitxategietan) eman behar da, Plegu honetan adierazitako baldintzetan, halakorik bada. Bi euskarrietako informazioa bat ez badator, paperean inprimatuta aurkeztutako dokumentazioan ageri dena gailenduko da.

Eskaintzak makinaz idatzita, edo beste modu batean mekanikoki edo informatikoki inprimatuta egongo dira, eta ez da onartuko eskuz idatzitako dokumenturik, ezta eskaintza baloratu ahal izateko baldintzak argi eta garbi ezagutzea eragozten duten hutsak, erroreak edo zuzenketak dituenik ere. Era berean, ez da onartuko APKLEOko 84. artikuluan ezarritako kasuren batean dagoen proposamenik.

Zehazki, eskaintza ekonomikoa Plegu honekin batera ematen den dokumentu informatikoan aurkeztu beharko da, dokumentu horren formatua batere aldatu gabe.

4. Ez dira onartuko APKLEOko 84. artikuluan ezarritako kasuetan dauden proposamenak, eta, beraz, atzera botako dira aztertu eta onartutako dokumentazioarekin konkordantziarik ez duten proposamenak, pleguetan ezarritako eredia funtsean aldatzen dutenak, zenbatekoan errore nabarmena

dutenak edo, lizitatuak berak aitortuta, bideraezin egiten dituen erroreak edo kontsistentziarik ezak dituztenak.

5. Prozeduran aurkezten diren eskaintzak prestatzeko dokumentazioa lantzearen kostu osoa lizitatuaren konturakoa izango da, eta ezingo dute inolako konpentsaziorik erreklamatu adjudikazioa ematen ez bazaie.

16 PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Eskaintzak aurkezteak esan nahi du lizitatuak baldintzarik gabe onartzen dituela Plegu hau eta kontratuaren gainerako dokumentazioa, inolako salbuespenik gabe.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatuak GHKren bulegoetan aurkeztu beharko dute **2014ko URTARRILAREN 20ko hamahiruak (13:00) arte** (kontratatuaren profilean iragarkia argitaratu eta hurrengo 15 egun naturaleko epean) gutun-azal itxi bat gero zehaztuko den dokumentazioarekin, bertan adieraziz enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zein titulurekin sinatzen duen, telefono eta fax zenbakiak, eta helbide elektronikoa, guztia argi irakurtzeko moduan.

Gutun-azalean inskripzio hau idatzi beharko da: **“EPELEKO (BERGARA) KONPOSTAJE-PLANTAREN ETA TRANSFERENTZIA-ESTAZIOAREN PROIEKTUA IDAZTEKO KONTRATUAREN LIZITAZIOA”**.

Gutun-azalean dokumentu hauek sartu beharko dira:

- a) **Enpresaburuaren jarduteko gaitasuna eta, behar denean, ordezkaritza, egiaztatzeko agiriak**, APKLEOko 21. artikuluan aurreikusita dagoen bezala.

Jarduteko gaitasuna egiaztatzeko aurkeztuko da:

- Lizitatuak pertsona juridikoa denean, eraketa-eskritura edo eraketa-agiria, Estatutuak edo fundazio-egintza, jarduera erregulatzen duten arauak jasoko dituztenak eta behar bezala inskribatuak, kasua denean, pertsona juridiko horri dagokion Erregistro publikoan.
- Proposamena sinatzen dutenak aldi baterako enpresa-elkartea (ABEE) eratzeko asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoak direnean, dokumentu pribatu bat, bertan adieraziz: lizitazioan batera aurkezteko borondatea; adjudikaziodun gertatuz gero kontratua aurrera eramateko ABEE eratzeko konpromisoa; enpresa bakoitzaren partaidetzaren portzentajea; eta, kontratua amaitu arte, kontratutik eratorritako eskubideak egikaritzeko eta obligazioak betetzeko ahalmena izango duen ordezkari edo ahalordedun bakar baten izendapena. Idazki hori sinatu beharko dute ABEE osatuko duten enpresa guztiek eta baita ahalordedunak ere. Eskaintza bateratua aurkezten duen enpresa-elkarte bateko partaideek ezingo dute posizio indibidualik aurkeztu eta ezingo dira beste aldi baterako elkarte batean edo beste enpresa

batzuekin batera sartu. Debeku hori ez betetzeak, araua hautsi duen lizitatzailleak sinatutako eskaintza guztiak atzera botatzea ekarriko du.

- Lizitatzailleak bere izenean diharduenean, parte-hartzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren, edo bere estatuko agiri baliokidearen, fotokopia.
- Beste baten izenean agertzen direnek edo proposamenak sinatzen dituztenek, Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, eta horretarako behar adinako ahalordearen agiria. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du, horrela eskatzen badu Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduko 94. artikulua.
- Enpresaburuak espainiarrak ez badira baina bai Europar Batasuneko estatu batekoak, kokatuta dauden estatuko legeriak agintzen duen Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo zinpeko deklarazio bat edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aplikatzekoak diren xedapen komunitarioen arabera.
- Gainerako enpresaburu atzerritarrek Espainiak haien estatuan duen Diplomaziako Misiso Iraunkorrek edo enpresaren egoitzari dagokion Kotsularen Bulegoak egindako txostenaren bidez egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute enpresa atzerritarren jatorrizko estatuak aukera ematen diela Espainiako enpresei hango administrazioarekin eta SPKLko 3. artikuluan aipatutako sektore publikoko kideko ente, organismo edo erakundeekin egiten diren kontratazioetan funtsean modu bertsuan parte hartzeko.

b) **Berariazko eta ardurapeko adierazpena**, I. Eranskinean jasota dagoen ereduaren araberakoa. Adierazpen horretan deklaratu beharko du **ez duela kontratatzeko debekurik** SPKLTBko 60. artikulua ezarritakoaren arabera, bereziki aipatuz artikulua horretako 1. apartatuko c) letrak dioena, hau da, ez duela zehapen irmorik jaso laneko segurtasun eta osasunaren arloan arau-hauste larria egiteagatik; eta beteta dituela tributuen eta gizarte segurantzaren arloko obligazioak, APKLEO erregelamenduko 13. eta 14. artikuluetan zehazten direnak.

c) **Jarduera Ekonomikoen gainerako Zergan (JEZen)** kontratuaren objektuari dagokion epigrafean **alta emanda dagoela egiaztatzeko agiria**, alta aurkeztuz uneko ekitaldikoa bada, edo azkeneko JEZ ordainagiria aurkeztuz gainerako kasuetan, edozein kasutan, zerga horren matrikulan ez duela baja eman deklaratzeko ardurapeko adierazpenarekin batera (I. Eranskina).

d) **Lizitzaileen dokumentu eta datu konfidentzialak**. SPKLTBk 140. artikuluan xedatzen duen modura, lizitatzailleak deklarazio osagarri baten bidez adierazi behar dute zein dokumentu administratibo eta tekniko eta zein datu hartu behar diren beren ustez konfidentzialtzat, horrelakorik badago. Konfidentzialtzat jotako dokumentuan bertan ere argi eta garbi adierazi beharko da izaera hori (gainean, orri-ertzean, edo beste edonola). Lizitatzailleak aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat hartu ahal izango dira, horien berri hirugarren bati emateak enpresaren merkataritza-interes legitimoen kontra egin

dezakeenean, arlo bereko enpresen arteko lehia leiala kaltetu dezakeenean edo Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritako debekuak urratzen dituenean. Deklarazio hori egiten ez bada, ulertuko da aurkeztutako dokumentu edo datu guztiak edo batzuk, ezaugarrien arabera, ez direla konfidentzialak.

e) Gainera, entitate lizitatzailerak jarraian adierazten diren **kaudimen-baldintzak** bete beharko ditu lehiaketa publikoan parte hartu ahal izateko.

e.1.) **Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa** SPKLTBko 75. artikulua arabera egiaztatuko da, dokumentu hauek aurkeztuta:

1. Negozio-bolumen globalaren gaineko deklarazioa eta, hala badagokio, kontratuaren objektuaren jarduera-esparruko negozio-bolumenaren gaineko deklarazioa, gehienez ere erabilgarri dauden azken hiru (3) ekitaldiei buruzkoa. Egiaztatu beharko da urteko batez besteko negozio-bolumena lizitazioaren oinarritzko aurrekontua adinakoa izan dela azken hiru (3) urteetan. Urteko kontuek emaitza positiboa erakutsi beharko dute ekitaldi horietako bitan gutxienez.

2. **SEIEHUN MILA EUROKO (600.000 €) Erantzukizun Zibileko aseguruia** izatearen justifikazioa.

Arrazoi justifikaturen batengatik, lizitatzailerak edo talde bat osatzen duten lizitatzaileretako batek ezin baditu aurkeztu eskatzen diren erreferentzia horiek, kontratazio-organoak baimena eman ahal izango dio egoki deritzon beste edozein dokumenturen bidez egiaztatu dezan kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa.

e.2.) **Kaudimen teknikoa eta profesionala** SPKLTBko 76. artikulua arabera egiaztatuko da, dokumentu hauek aurkeztuta:

1.- **Azken bost urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda**, alderdi hauek zehaztuz: zerbitzu edo lanen **zenbatekoa, data, non egin diren eta hartzailea, publikoa zein pribatua**. Horretarako, lanak ongi gauzatu izanaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, era berean, zenbatekoa, data eta non egin diren zehaztuta.

2.- Lizitatzailerak azken **5 urteetan biohondakinen konpostaje-plantei buruzko 3 proiektu izan beharko ditu eginda** %50ean baino gehiagoan etxeko hondakinen edo antzekoen gaikako bilketatik ateratako zati organikoen hondakinez osatutako biohondakinei buruzkoak, eta urtean 15.000 tona hondakin tratatzeko bolumenekoak. Zerrendan zenbatekoa, data, eta plantaren hartzaile publikoa/pribatua zehaztuko dira. Organo eskudunak egindako ziurtagiri edo bisatuen bidez egiaztatuko dira plantaren hartzailea sektore publikoko entitate bat izan denean, eta hartzailea pribatua denean, hark

egindako ziurtagiri baten bidez edo, ziurtagirik ezean, enpresaburuaren deklarazioaren bidez.

3.- Lizitazaile-taldeak edo enpresak profesional hauek izan beharko ditu gutxienez:

- Goi Mailako Ingeniaria, Pleguko proposamenaren antzeko proiektuen idazketa koordinatzeko gaitasuna izango duena, eta 15 urteko esperientzia gutxienez.

- Teknikari bat, segurtasun industrialak bete behar duten instalazioen proiektuak idazteko gai izango dena, gutxienez 8 urteko esperientzia duena.

- Arkitektoa, gutxienez 8 urteko esperientzia duena.

- Bide, Ubide eta Portuetako ingeniari bat, urbanizazioak, bideak, zimenduak eta egiturak egiteko proiektuak idazteko gai dena, eta gutxienez 8 urteko esperientzia duena.

- Geologia eta Geotekniako teknikaria, gutxienez 8 urteko esperientzia duena.

- Konpostajeko plantak eta prozesuak diseinatzen aditua, ECN edo antzeko entitate baten ziurtagiriarekin, A klaseko edo pareko konposta produzitzeko aireztatze-sistema duten tunel itxietako konpostaje-prozesuen bidez, gutxienez, urtean 15 KTko kapazitate minimoa duen era horretako planta industrial batean.

4.- Profesional horien titulazio akademiko eta profesionalak egiaztatze, titulu ofizialen kopia kautotuak aurkeztu beharko dira.

f) **Proposamen teknikoa.**

Proposamena memoria batean definituko da. Memoria horretan justifikatuko da betetzen direla Preskripzio Teknikoen Pleguan definitutako eskakizun guztiak eta puntuazio teknikoa jasoko duten edukiak xehatuko dira (Preskripzio Teknikoen Pleguko 17.1 klausulan oinarrituta).

g) **Proposamen ekonomikoa**, Plegu honi erantsitako **III. Eranskinean** jasotako ereduari egokitua.

h) Proposamena aurkezten duena **Aldi Baterako Enpresa Elkarte** bat denean, elkartea osatzen dutenetako bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu. Kasu horretan, metatu egingo dira, egoki den moduan, elkartean sartutako ekipo bakoitzak egiaztatutako ezaugarriak, eta ABEEko kide den ekipo bakoitzaren sailkapen indibidualak, plegu honetan eskatzen den kaudimen/sailkapen orokorra egiaztatu ahal izateko. Era berean, elkarteko kide guztien legezko ordezkariak sinatutako dokumentu bat aurkeztu beharko da, sinatzen duten enpresaburuaren izenekin eta inguruabarrekin. Dokumentu horretan adieraziko dute adjudikaziodun gertatuz gero aldi baterako enpresa-elkartea

eratzeko konpromisoa hartzen dutela, zenbateko partaidetza duen bakoitzak elkartean, eta gainera pertsona bat izendatuko dute kontratua indarrean den bitartean guztien ordezkari izan dadin administrazioaren aurrean.

Sailkapena nahitaezkoa denean, aldi baterako elkartean enpresaburu nazionalak eta Europar Batasuneko Estatu batekoak ez diren atzerriarrak, eta Europar Batasuneko Estatu batekoak diren atzerriarrak daudenean, lehengo bi multzoetakoek sailkapena egiaztatu beharko dute, eta hirugarrenetakoek kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala.

i) **Atzerriko enpresek**, kontratutik zuzenean edo zeharka etor litezkeen gorabehera guztietan Espainiako edozein arlotako epaitegi eta auzitegien mende jartzen direla eta, hala dagokionean, lizitatzailari atzerrian egokitu dakioken foru jurisdikzionalari uko egiten diotela esaten duen deklarazioa, Plegu honekin batera ematen den **IV. Eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

Aurrekoaz gain, Europar Batasunetik kanpoko atzerriko enpresek egiaztatu beharko dute Espainian sukurtsal bat irekia dutela, eta egin beharreko eragiketetarako ahalordedunak edo ordezkariak izendatuta dauzkatela, baita Merkataritza Erregistroan izena emanda daudela ere.

Enpresa horiek aurkeztutako dokumentazioa ofizialki itzulita egongo da gaztelaniara edo euskarara, APKLEOko 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

j) Prozedura honetatik etorriko diren jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa, SPKLTBko 151.4 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako (**V. Eranskina**).

Goiko a) eta c) letretan adierazitako baldintzak egiaztatu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuako Lizitatzaileren eta Sailkatutako Enpresen erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLTBko 84. artikulua xedatutakoaren arabera. Aipatu ziurtagiriarekin batera, adierazitako egoerak ez direla aldatu ziurtatzen duen lizitatzaileren ardurapeko adierazpena ere gehitu beharko da. Adierazpen hori errepikatu egin beharko da, adjudikaziodun gertatuz gero, kontratua formalizatzeko dokumentuan, kontratazio-organoari eragotzi gabe Kontratisten Erregistroan kontsulta bat egitea.

Galdatutako dokumentazioa kopia soil gisa edo kopia konpultsatu gisa aurkeztuko da, ardurapeko adierazpenak izan ezik. GHK-k lehenengo sailkatuari eskatuko dio jatorrizko dokumentazioa entregatzea edo, bestela, Administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatu edo kautotutako kopia, kopia soila entregatu bada.

17 IZAPIDETZEA ETA NEGOZIAZIO-FASEA

Lizitatuzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioaren edukia, aurreko 16. klausulan adierazitakoari egokituko zaio, klausula horretan ezarritako adjudikazio-irizpideak baloratu eta puntuatu ahal izateko.

GHK-ko pertsonal teknikoak kalifikatuko ditu garaiz eta behar den moduan aurkeztutako dokumentuak eta, zuzentzeko moduko akats edo hutsik antzematen badute, epe bat emango diote lizitatuzaileari, gehienez hiru (3) egunekoak, akats edo huts horiek zuzen ditzan.

Aurkeztutako dokumentazioan antzemandako akats edo hutsak zuzendutakoan, zuzentzen badira, eta eskatuzaileen nortasuna eta kaudimena egiaztatutakoan, negoziazio-fasea hasiko da, alderdi ekonomiko eta tekniko hauei buruz: prezioa, garantia-epea, hobekuntzak,...

Kontratua eskaintza onenari adjudikatuko zaio, jarraian adierazten diren irizpide objektiboen arabera:

1. IRIZPIDEA: PROPOSAMEN TEKNIKOA: 50 PUNTU.

Irizpide honetan kontuan hartuko dira lizitatuzaileek aurkeztutako Proposamen Teknikoaren edukitik atera litezkeen konklusioak. Puntuazio handiena, **50 puntura artekoa**, lortuko du egin beharreko lanak zuzen egingo direla ongien segurtatzen duen proposamenak.

Horretarako, azpimarratzen da honako puntu hauek dokumentatuta eta modu arrazionalen xehatzearen garrantzi berezia:

1. **Eskatutako konposta egokia den ontze-maila duela lortzeko prozesuaren diseinua eta irtenbidearen erraztasuna.** 0 puntutik 30era arte haztatuko da.

2. **Konpostatzeko plantan lan egiteko beharrezkoak diren ustiapen-langileak.** 0 puntutik 5era arte haztatuko da.

3. **Planta ustiatzeko kostuen taula, amortizazioak barne, eta horien eragina tratatutako biohondakin eta ekoiztutako konpost tona bakoitzeko. Amortizazio-aldia 15 urtekoa izango da.** 0 puntutik 10era arte haztatuko da.

4. **Aurreikusitako makina finko eta mugigarrien definizio-maila eta egokitasuna.** 0 puntutik 5era arte haztatuko da.

Proposamen Teknikoaren balorazioari dagokionez, **gutxienez 30 puntu lortu beharko dira teknikoki egokitzat jo ahal izateko.** Gutxieneko puntuazio horretara heltzen ez diren proposamenak lizitaziotik kanpora utziko dira, eta ez da haien eskaintza ekonomikoa baloratuko.

2. IRIZPIDEA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA: 50 PUNTU.

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, jarraibide hauek izango dira gidari:

- %0 eta %10 arteko lizitazio-beherapenak direnean, adierazpen honen arabera erabakiko da puntuazioa: $P = (B) \cdot 350$
- %11 eta %20 arteko lizitazio-beherapenak direnean, adierazpen honen arabera erabakiko da puntuazioa: $P = 35 + (B-0,1) \cdot 100$
- %21 eta %30 arteko lizitazio-beherapenak direnean, adierazpen honen arabera erabakiko da puntuazioa: $P = 45 + (B-0,2) \cdot 50$

Eskaintzetako "prezio" elementua konparatzeko, eskaintza bakoitzeko prezio garbia bakarrik hartuko da kontuan (BEZa sartu gabe).

Beharpena (**B**) izango da, lizitazioaren Oinarrizko Aurrekontuaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko diferentzia, lizitazioaren Oinarrizko Aurrekontuarekin zatituta.

Bestalde, **P** izango da formula aplikatu ondoren eskaintzaileari dagokion puntuazioa.

Ez dira kontuan hartuko lizitazioaren oinarrizko prezioa baino proposamen ekonomiko handiagoa egiten duten eskaintzak.

Ez da onartuko EHUN ETA HOGEITA HEMERETZI MILA EURO ETA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (139.999 euro) eta dagokion BEZa baino gutxiagoko proposamen ekonomikorik.

18 ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA.

18.1. Eskaintzen sailkapena.

Aurkeztutako eskaintzak ikusita eta parte-hartzaileekin egin beharreko negoziazioak egindakoan eta burututakoan, kasua bada, GHK-ko Zerbitzu Teknikoek eskaintzei buruzko txostena egingo dute eta Kontratazio Mahaiari helaraziko diote. Kontratazio Mahaiak, proposamena egin aurretik, behar dituen txosten tekniko eta juridikoak eskatu ahal izango ditu kontratazio-organoari formulatzeko eskaintza-sailkapena egiteko.

Kontratazio-organoak beherezko ordenan sailkatuko ditu aurkeztutako eta neurrigabe edo anormaltzat jo ez diren proposamenak, horrela aurreikusi bada preskripzio teknikoaren pleguan. Sailkapen hori egiteko, pleguan edo iragarkian adierazitako adjudikazio-irizpideak izango ditu kontuan, eta horretarako egoki deritzen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Kontratazio-organoak errekerimendua egingo dio ekonomikoki eskaintza onena egin duen lizitzaileari, hamar (10) egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatuta, adjudikazio-prezioaren %5eko behin betiko garantia jarri duela eta tributuen eta Gizarte Segurantzaren arloko obligazioak beteta dituela egiaztatzeko dokumentazioa aurkez dezan edo kontratazio-organoari baimena eman diezaion zuzenean lor ditzan egiaztagiria. Ziurtagiri horiek guztiak bitarteko elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bidez eman daitezke, pleguetan bestelakorik ezarri ezean.

Errekerimendu hori adierazitako epean bete ezean, lizitzaileak bere eskaintzari uko egin diola ulertuko da, eta kasu horretan hurrengo lizitzaileari eskatuko zaio dokumentazio berbera, eskaintzen sailkapeneko ordenari jarraituz.

18.2. Adjudikazioa.

Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egun balioduneko epean adjudikatu beharko du kontratua. Adjudikazioak zehaztu eta finkatuko ditu kontratuaren behin betiko baldintzak.

Lizitazioa ezingo da adjudikatu gabe utzi, pleguko irizpideen arabera onargarri den eskaintza edo proposiziorik aurkeztu bada.

Adjudikazioa arrazoitua izango da, hautagaiei eta lizitzaileei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

18.3. Adjudikazioaren jakinarazpena.

Jakinarazpenak, kasu guztietan, behar adinako informazioa eman behar du; zehazki, puntu hauek adieraziko ditu:

- a) Baztertutako hautagaiei buruz, baztertu izanaren arrazoiak azalpen laburtua.
- b) Adjudikazio-prozeduratik baztertu diren lizitzaileei dagokienez, horien eskaintza onartu ez izanaren arrazoiak azalpen laburtua.
- c) Kasu guztietan, adjudikaziodunaren izena eta hautatu den eskaintzaren ezaugarriak eta abantailak, onartutako gainerako lizitzaileek aurkeztu dituzten eskaintzen aldean lehentasuna emateko erabakigarri izan direnak.

Adjudikazioaren arrazoiei konfidentzialtasun-salbuespena aplikatuko zaie, SPKLTBko 153. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jakinarazpena egiteko, hartzaileak jaso izana agerian utz dezakeen edozein bide erabil daiteke. Zehazki, lizitzaileek eskaintza aurkezterakoan Plegu honen V. Eranskinean adierazitako helbide elektronikoen bidez egin daiteke, 2007ko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrak zerbitzu publikoetara bide elektronikoz sartzeari buruzkoak, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala ere, jakinarazpena errefusatutzat —azaroaren

26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan aurreikusitako ondorioekin— jotzeko epea bost (5) egunekoa izango da.

Dena dela, kontratazio-organoak aukera dezake adjudikazioari buruzko hainbat datu ez jakinaraztea, baldin eta uste badu, espedientean behar bezala arrazoituz, informazio hori zabaltzea eragozpen izan daitekeela arau bat aplikatzeko, edo interes publikoaren aurkako gerta daitekeela, edo enpresa publiko edo pribatuen legezko merkataritza-interesak edo beren arteko lehia leiala kaltetu ditzakeela.

18.4. Adjudikazioaren ebazpena.

Behin-behineko adjudikaziodunak beharrezko baldintzak betetzen ez dituelako kontratua ezin denean behin betiko adjudikatu, beste deialdi bat egin aurretik Administrazioak behin-behineko adjudikazioa egin diezaioke haren ondorengo lizitatzailari edo lizitatzaileri, horien eskaintzak sailkatuta dauden hurrenkeran, betiere, hori egin daitekeenean eta adjudikaziodun berria ados dagoenean. Horrela eginez gero, adjudikaziodun berriari hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio Plegu honen 18.1 eta 19, klausuletan adierazitakoa dokumentazioa aurkez dezan.

18.5. Dokumentazioaren zaintza

Behin kontratua adjudikatuta dagoenean, errekurtsioak aurkezteko epea errekurtsorik jarri gabe amaitu bada, proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesdunen esku geldituko da. Dokumentazioa erretiratzeko eskaera idatziz egin beharko da. Ez badute dokumentazioa erretiratzeko epe hori igaro eta hurrengo hiru hilabeteetan, kontratazio-organoak ez du zaintzen jarraitzeko obligaziorik izango, behin-behineko garantia justifikatzen duten dokumentuak izan ezik, horiek mantendu egingo baitira interesdunei entregatzeko.

19 ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Aurreko klausulan adierazitakoekin batera, plegu honetako 16.e.1.2. apartatuan zehaztutako aseguru-polizaren ordainagiri eguneratuaren kopia kautoa aurkeztu beharko du adjudikaziodunak.

Kasua denean, ABEE legez eratu izana egiaztatzeko agiria.

Edozein kasutan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan ez duela baja eman deklaratzeko ardurapeko adierazpena ere aurkeztu beharko da.

20 BEHIN BETIKO BERMEA.

Plegu honetako 18. klausulan adierazten den bezala, eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailak **adjudikazio-prezioaren % 5eko** behin betiko bermea eratu beharko du kontratazio-organoaren alde, Balio Erantsiaren

gaineko Zerga kenduta, SPKLTBko 95.2 artikulua arabera, kontratutik sortutako obligazioak beteko dituela garantizatzeko.

- Behin betiko garantiak SPKLTBko 100. artikuluan ezarritako kontzeptuak bermatu beharko ditu.
- SPKLTBko 96. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan eratu ahal izango da garantia. Baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez egiaztatu ahal izango da garantia eratu izana. Baldintza hori betetzen ez badu berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, GHK-k ez dio adjudikaziorik emango eta SPKLTBko 151.2 artikuluko azkeneko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.
- Adjudikaziodunari zigor ekonomikoak ezartzen bazaizkio kontratuko obligazioak ez betetzeagatik, kontratazio-organoak garantiaren aurka jo ahal izango du askatasun osoz, eta eskubide hori ez da etenda geratuko adjudikaziodunak jar litzakeen erreklamazio edo errekursoak bideratzen ari diren bitartean.
- Adjudikaziodunak kontratuan ezarritako obligazioen bat bete ez duelako, garantiaren kontra joko balitz, adjudikaziodunak hamabost (15) egun naturaleko epean (garantia exekutatzeko den egunetik kontatuta) birjarri edo handitu beharko du, dagokion muntan.
- Kontratuan aldaketaren bat izan delako, kontratuaren prezioa aldatzen denean, garantia berregokitu egin beharko da, proportzio egokia mantentzeko dezan aldatutako prezio berriarekin, hamabost eguneko epean, aldaketa egiteko erabakia enpresaburuari jakinarazten zaion egunetik kontatuta.
- Garantia SPKLTBko 102. artikuluan ezarritakoaren arabera itzuliko da, garantiaren epea amaitzen denean eta adjudikaziodunak legezko obligazio guztiak bete ondoren.
- Behin betiko garantia urtebeterako geratuko da lotuta, GHK-k kontratuaren harrera-akta sinatzen duenetik kontatuta, Plegu honetako 26. klausulan jasotakoaren arabera.
- Klausula honetan jasotako estipulazioetakoren bat ez betetzea nahikoa izango da kontratua GHKren alde suntsiarazteko, betiere ez betetze hori kontratistari egotz badakioke.

21 KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Formalizazioaren bidez burutzen da kontratua.

21.1 Kontratua formalizatzea.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, **bost (5) egun balioduneko epean, adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuta**, SPKLTBko 151.4 artikuluan eta plegu honetako 18.3 klausulan aurreikusitako eran.

1. Kontratua formalizatzeko dokumentuak SPKLTBko 26. artikuluan eta APKLEOko 71. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko ditu.
2. Kontratua sinatzearekin bat, adjudikaziodunak Klausula Administratibo Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Plegua sinatu beharko ditu eta kontratuari gehituko zaizkio eranskin gisa, APKLEOko 71. artikuluan ezarritakoari jarraiki.
3. Adjudikaziodunak eskatzen badu, berak ordainduta, kontratua eskritura publikoan formalizatzea, eskrituraren kopia soila eman beharko dio kontratazio-organoari.

21.2 Ez formalizatzearen ondorioak

1. Adjudikaziodunari egozteko arrazoiengatik, kontratua ezin bada formalizatu aurreko apartatuan aurreikusitako epean, SPKLTBko 156. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.
2. Epearen barruan ez formalizatzeko arrazoia kontratazio-organoari egoztekoa bada, adjudikaziodunak kalte-ordaina eskatu ahal izango du atzerapenak ekar liezazkiokeen kalte-galerengatik.

IV. KAPITULUA: ALDERDIEN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK

22 KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK

Kontratua exekutatzean, Pleguan aitortzen zaizkion eskubideak izango ditu kontratistak, bereziki, jarraian zehazten direnak:

22.1 Kontraprestazioa jasotzeko eskubidea.

Kontratistak itundutako prezioa kobratzeko eskubidea izango du, Plegu honetan eta kontratuari buruzko gainerako dokumentazioan aurreikusitako moduan, kontratua bere arrisku eta menturara exekutatzearen ordainetan.

22.2 Kontratuaren lagapena

1. Debehatuta dago kontratutik sortutako eskubideak eta obligazioak hirugarren bati lagatzea, kontratazio-organoak aldeztu aurretik, berariaz eta idatziz baimena eman ezean, eta kontratazio-organoak baimena ukatu ahal izango du lagatzailearen

ezaugarri teknikoak edo pertsonalak erabakigarriak izan badira kontratua adjudikatzen.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, kontratuaren lagapena baimentzeko, nahitaezko baldintza izango da kontratuaren ehuneko hogeia behintzat exekutatuta egotea eta lagapen-hartzaileak Plegu honetan lizitatzailerari eskatzen zaizkien gaitasun eta kaudimenerako baldintza berak izatea.
3. Baimendu eta eskritura publikoan formalizatu ondoren, lagapen-hartzailea subrogatuta geratuko da lagatzailearen eskubide eta obligazio guztietan.

23 KONTRATISTAREN OBLIGAZIOAK

Kontratatik kontratua bete beharko du horretarako ezarritako epean, Plegu honen **VI. Eranskinean** (dokumentazioarekin batera aurkeztu beharrekoan) jasotzen den bezala.

Kontratu-klausuletan eta Plegu Administratibo hauetan eta Teknikoetan ezarritakoaren arabera, eta kontratua interpretatzeko kontratazio-organoak kontratistari ematen dizkion instrukzioak betez, exekutatu beharko da kontratua.

Era berean, kontratatik arau laboral eta sozial guztiak bete beharko ditu eta, zehazki, Gizarte Segurantzari, Segurtasun eta Higieneari eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoak.

Kontratatik datu pertsonaletarako sarbidea badu, 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, eta lege hori garatzen duen araudiak ezarritako obligazio guztiak bete beharko ditu.

24 KONTRATAZIO-ORGANOAREN (GHKren ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN) ESKUBIDEAK

Pleguan eta kontratuaren gainerako dokumentazioan eta aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritako muga barruan eta bertan adierazitako baldintza eta ondorioekin, jarraian azaltzen diren eskubideak izango ditu GHK-k.

Edozein kasutan, GHK-k hartu ahal izango ditu kontratuaren objektu den exekuzioa etetea eragozteko beharrezkoak diren neurri guztiak, jarraipena segurtatu ahal izateko, batez ere, kontratistaren ez-betetzea izan denean, eta eskubidea izango du kontratistari ordainarazteko egiten dituen gastuak eta kostuak eta, kasua bada, gastu eta kostu horiek kontratistari edozein kontzepturengatik zor dizkion zenbatekoekin konpentsatzeko. Hori dena, Plegu honetan kontratua suntsiarazteari buruz aurreikusitakoa eragotzi gabe.

24.1.- Kontratua aldatzea

GHK-k kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLTBko 107. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, baldin eta horrekin ez badira aldatzen lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak.

Aldaketa posible horiek nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

Kontratuan egindako aldaketa idatziz formalizatu beharko da, SPKLTBko 107. artikuluan aurreikusitako moduan.

24.2 Aplikatzekoa den araudian aitortutako eskubideak

Plegu honetan eta kontratuaren gainerako dokumentazioan aitortzen zaizkion eskubideez gain, aplikatzekoa den araudiak aitortzen dizkion gainerako guztiak ere izango ditu GHK-k.

25 KONTRATAZIO-ORGANOAREN OBLIGAZIOAK

Plegu honetatik, kontratuaren gainerako dokumentaziotik eta indarrean dagoen arauditik sortzen zaizkion obligazio guztiak beteko ditu GHK-k.

26 KONTRATUAREN HARRERA

Kontratututako prestazioa entregatzen denetik hilabeteko epean gehienez ere, kontratuaren harreraren egintza formal positiboa egingo da, eta dagokion akta egingo da.

GHK-k erabakiko du kontratistak egindako prestazioa egokitzen zaien kontratua exekutatzeko eta betetzeko ezarritako preskripzioei, eta, kasua bada, kontratatutako prestazioak egiteko eta harreraren antzemandako akatsak zuzentzeko errekerimendua egingo dio, SPKLTBko 307. artikuluan eta APKLEOko 203. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Egindako lanak ez bazaizkio egokitzen kontratatutako prestazioari, kontratistari egozteko bizio edo akatsengatik, espresuki jasoaraziko da eta instrukzioak emango zaizkio kontratistari akatsak zuzen ditzan. Akatsak zuzentzen ez badira, GHK-k kontratistaren kontura utziko du eta ordaintzeko obligaziotik libre geratuko da edo dagoeneko ordaindu duena berreskuratzeko eskubidea izango du.

VII. KAPITULA: ZIGORRAK

27 EZ BETETZEAGATIK, KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK

27.1. Kontratua exekutatzeko epeak ez betetzea

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, atzeratu egiten bada kontratua exekutatzeko epea betetzeko garaian, epe orokorrean nahiz epe partzialetan, GHK-k aukeratu ahal izango du kontratua suntsiaraztea, garantia galduta, edo zigorra ezartzea atzerapen-aste bakoitzeko kontratu-prezioaren %0,5eko proportzian.

Atzeratzeagatiko zigorra kontratu-prezioaren 100eko 5aren multiplo batera iristen den bakoitzean, kontratazio-organoak erabaki ahal izango du kontratua suntsiaraztea edo aurrera jarraitzea berriro ere beste zigor bat ezarrita.

27.2. Behar den bezala ez betetzea

Prestazioa behar den bezala betetzen ez bada, kontratuaren aurrekontuaren %10aren pareko zigorra ezarri ahal izango du GHK-k.

27.3 Kaudimen-konpromisoak ez betetzea

Kontratistak eskaintzan adierazitako baliabide materialak edo pertsonalak adskribatzeko obligazioa betetzen ez badu, 16. klausulan xedatutakoari jarraiki, kontratuaren aurrekontuaren %10aren balioko zigorra ezarri ahal izango du GHK-k.

VIII. KAPITULA: KONTRATUAREN IRAUNGIPENA

28 KONTRATUAREN IRAUNGIPENA

Zerbitzu-kontratu hau, bete delako edo suntsiarazi egin delako azkenduko da.

28.1 KONTRATUA BETETZEA

Kontratistak kontratu honen objektu diren prestazioak osorik betetzen dituenean azkenduko da kontratua, baldin eta kontratuaren dokumentazioan ezarritako baldintza guztiak bete badira GHKren oniritziarekin, Plegu honetako 4. klausulan ezarritako epearen barruan edo, kasua bada, epeari buruz erabakitako luzapen edo laburpenen barruan.

28.2 KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Zerbitzu-kontratua suntsiarazteko kausa izango dira SPKLTBko 223 eta 308. artikuluetan ezarritakoak eta, oro har, kontratu-obligazioak ez betetzea, Kode Zibileko 1124. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratua garaiz aurretik suntsiarazteak honako ondorioak izango ditu:

- Kontratua bi alderdiak ados jarrita suntsiarazten denean, alderdi baten eta bestearen eskubideak alderdiek balio osoz onartutakoari egokitu behar zaizkio.
- Kontratataren erruz bete gabe geratzeagatik suntsiarazten bada kontratua, sortutako kalte eta galeren ordainak eman beharko dizkio kontratistak administrazioari, konfiskatutako garantia gainditzen duen zatian, eta kasu guztietan kontratu-prezioa penalizatzeko klausula bat ezarrita.

Klausula honetan aurreikusten ez den guztian, SPKLTBko 224, 225 eta 309. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

I. ERANSKINA. ARDURAPEKO ADIERAZPEN EREDUA

.....
jaunak/andreak, NAN zk. duenak, bere izenean edo
(adierazi ordezkari-ahalmena: administratzaile bakar, ahalordedun) gisa,
....., (IFK) enpresaren
ordezkaritzan

DEKLARATZEN DU

- Bai berak eta bai ordezkatzan duen enpresak ahalmena dutela Administrazio Publikoarekin kontratuak egiteko, jarduteko gaitasun osoa izanik, ez daudelako sartuta **Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginak 60.** artikuluan jasotako inolako egoeratan. Bereziki, berariaz deklaratzan du ez duela zehapen irmorik jaso laneko segurtasun eta osasunaren arloan arau-hauste oso larria egiteagatik, SPKLTBko 60.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Zerga-obligazioetan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela, indarrean dauden xedapenek ezarri bezala eta **Administrazio Publikoaren Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorreko 13. eta 14. artikuluek** aurreikusten duten neurrian (2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua).
- **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela** kontratuaren objektuari dagokion epigrafean eta ez duela baja eman zerga horren matrikulan.

Eta jasota gera dadin eta behar den ondorioak izan ditzan, ardurapeko adierazpen hau sinatzen dut(e)n, ko ren
.....(e)an

Sin.:

(ENPRESAREN ZIGILUA)

II. ERANSKINA. PROPOSAMENA GHK-KO SARRERAKO ERREGISTROAN ENTREGATZEKO EREDUA

..... jaunak/andreak, NAN zk. duenak, bere izenean edo, kasua bada, enpresaren, IFZ zk....., helbidea(e)n, fax zk. eta/edo helbide elektronikoa..... dituenaren ordezkartzan

ADIERAZTEN DU:

Gaur,e(t)an (*), "EPELEKO (BERGARA) KONPOSTAJE-PLANTAREN ETA TRANSFERENTZIA-ESTAZIOAREN EXEKUZIO-PROIEKTUA IDAZTEKO KONTRATUA"ren lizitaziorako kontratazio-espediterako proposamena entregatu duela.

Hernanin, 2014koren(e)an

Sin.:

(Aurkezlearen sinadura)

III. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

“..... jaunak/andreak,
helbidea
..... (e)n, etaNAN zk.,telefonoa,
etahelbide elektronikoa dituenak, gaitasun juridiko eta
jarduteko gaitasun erabatekoaren jabe izanik, bere izenean (edo
....., helbidea
.....(e)n, eta
.....NAN edo IFK zk. [*pertsona fisikoa edo juridikoa den kontuan
izanda*] dituenaren ordezkartzan), **“EPELEKO (BERGARA) KONPOSTAJE-PLANTA
ETA TRANSFERENTZIA-ESTAZIOAREN PROIEKTUA IDAZTEKO”** kontratuari
buruzko prozedura negoziatu publizitadedunaren bidezko lizitazioan parte hartzeko
GHK-k egindako gonbita jasota

DEKLARATZEN DU:

1.) Konpromisoa hartzen duelaeuroko prezioan exekutatzeko, BEZa sartu gabe.

Horren gehigarri, dagokion BEZa fakturatuko dela.

2) Prezioan sartuta daudela kontzeptu guztiak, barne hartuz, edozein arlotako gainerako zergak, gastuak, tasak eta arielak eta baita kontratistaren mozkin industrialak ere.

3) Kontratu hau eraenduko duten klausula Ekonomiko Administrazioaren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Plegua ezagutzen dituela eta berariaz bere egiten dituela eta osoz onartzen.

4) Berak ordezkatzeko duen enpresak betetzen dituela tributuak eta Gizarte Segurantzaren arloan indarrean dagoen araudiak ezarritako betekizun eta obligazio guztiak.

.....(e)n, 2014koren.....(e)an.

Sinadura.

IV. ERANSKINA. ENPRESA ATZERRITARREN DEKLARAZIOA

“..... jaunak/andreak,
helbidea
..... (e)n,
NAN zk., telefonoa, eta
helbide elektronikoa dituenak, gaitasun juridiko eta
jarduteko gaitasun erabatekoaren jabe izanik, bere izenean (edo
.....,
helbidea(e)n, eta
NAN edo IFK zk. [pertsonea fisikoa edo juridikoa den kontuan
izanda] dituenaren ordezkartzan), **“EPELEKO (BERGARA) KONPOSTAJE-PLANTA
ETA TRANSFERENTZIA-ESTAZIOAREN PROIEKTUA IDAZTEKO”** kontratuari
buruzko prozedura negoziatu publizitadedunaren bidezko lizitazioan parte hartzeko
GHK-k egindako gonbita jasota.

DEKLARATZEN DU

- 1.- Kontratutik zuzenean edo zeharka etor litezkeen gorabehera guztietan Espainiako edozein motatako epaitegi eta auzitegien mende jartzen dela eta, hala dagokionean, lizitatuzaileari atzerrian egokitu dakiokkeen foru jurisdikzionalari uko egiten diola.
- 2.- Europar Batasunetik kanpoko atzerriko enpresa bada, Espainian sukurtsal bat irekia duela egiaztatzen duela, egin beharreko eragiketarako ahalordedunak edo ordezkariak izendatuta dauzkala, eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoela.
- 3.- Konpromisoa hartzen duela dokumentazioa gaztelaniara edo euskarara ofizialki itzulita aurkezteko, APKLEOko 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eta jasota gera dadin eta behar den ondorioak izan ditzan, ardurapeko adierazpen hau sinatzen du ____ko _____ren _____(e)an

Sin.: _____

V. ERANSKINA KOMUNIKAZIOETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA(K)

.....
 jaunak/andreak, adin nagusikoak, helbidea. (e)n
 eta NAN zk. dituenak,ren,
 sozietatearen egoitza
(e)n eta IFK zk.dituenaren,
 izenean eta ordezkaritzan

AZALTZEN DU

Ondorio guztietarako, eta bereziki dokumentazio administratiboko akatsak zuzentzeko eskaerak jasotzeko, helbide elektroniko hau(ek) izendatzen d(it)uela:

(Bat baino gehiago jar daitezke)

Helbide elektroniko horretara edo horietara dokumentazio- edo informazio-eskaerak bidaltzeak hasiera emango dio plegu honetan ezarritako epea kontatzeari, zehazki, klausula administratiboan pleguan adierazitako dokumentazio administratiboaren zuzentzeko epeari.

Eta jasota gera dadin eta behar den ondorioak izan ditzan, ardurapeko adierazpen hau sinatzen du ____ko _____ren _____(e)an

Sin.: _____

VI. ERANSKINA. EXEKUTATZEKO EPEA BETETZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

..... jaunak/andreak,
adin nagusikoak, helbidea (e)n
eta NAN zk. dituenak,ren,
sozietatearen egoitza
.....(e)n eta IFK zk.dituenaren,
izenean eta ordezkartzan

AZALTZEN DU

Konpromisoa hartzen duela **“EPELEKO (BERGARA) KONPOSTAJE-PLANTAREN ETA TRANSFERENTZIA-ESTAZIOAREN EXEKUZIO-PROIEKTUA IDAZTEKO KONTRATUA” HIRU (3) HILABETEKO EPEAN** exekutatzeko.

Laneko Programan zehazten diren epe partzialek kontratuko epe nagusien izaera dutela, eta, aurreko paragrafoan adierazitako kontratu-epe osoarekin batera, horiek ere obligazio nagusiak eta funtsezkoak direla.

Eta jasota gera dadin eta behar den ondorioak izan ditzan, ardurapeko adierazpen hau sinatzen du ____ko _____ren _____(e)an

Sin.: _____